

JON DARPÓNEK: «GIPUZKOARREI ARRETA ONKOLOGIKO BATERATUA ETA KALITATEKOA EMATEKO OINARRIAK FINKATU DITUGU»

Osasuneko sailburuak legebiltzarrean esan duenez, bi lantalde martxan jarri dituzte finantzaketa-ituna berritzeko eta Donostia Unibertsitate Ospitalearen eta Onkologikoaren arteko integrazio funtzionalen aurrera egiteko

Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburu **Jon Darpónek** ziurtatu duenez, Gipuzkoako Arreta Onkologikoaren Integrazio Funtzionalaren Planaren bidez, **arreta onkologiko bateratua eta kalitatezkoa** jasoko dute lurraldeko herritar guztiek. Gobernua plan horia garatzen ari da orain.

Onkologikoko patronatuko kide Guillermo Viñegararekin batera legebiltzarrean izan da sailburua, eta biek adierazi dutenaren arabera, dagoeneko **bi lantalde eratu dituzte**. Lehenengoaren helburua Eusko Jaurlaritzak Onkologikoarekin duen **ituna 2018ra arte berritzea** izango da, zeinaren bidez institutuak egonkortasun ekonomikoa lortuko baitu. Bigarrenak izaera kliniko du, eta bertan, Donostia Unibertsitate Ospitaleko eta Onkologikoko onkologia, erradioterapia eta kirurgia arloetako profesionalak **bi zentroak integratzeko lanean aurrera egingo** dute.

Onkologikoko, Donostia Unibertsitate Ospitaleko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunen arteko akordioaren lehenengo faseak honako jardura hauek barne hartzen ditu: **tumoreen inguruko batzordeak** abiaraztea; **zentroek partekatzen dituzten protokoloak** hobetzea; **eskaera koordinatzea**, itxarotendeboran diferentziarik ez egoteko; **ezagutza zientifikoa trukatzeko** fakultatiboan artean eta **informazio kliniko partekatzea**, pazienteek zentro guztietan artatuak izateko aukera izan dezaten.

Zehazki, xedea **Onkologia Erradioterapikoko eta Erradiofisikoko Zerbitzu Integratua** sortzea da. Bigarren fasean, bestalde, **hematologia eta onkologia medikoko zerbitzuei** helduko diete.

Epe ertainera, **Gipuzkoako ospitale zentroetako eta lehen mailako arretako profesionalak** bat egingo dute lantaldeekin.

Osasun Saileko arduradunen esanetan, garatzen dauden planaren amaierako helburua «jardura onkologikoa pazienteen beharren arabera antolatzea da, gaixotasunaren fase ezberdinetan arreta jasotzen duten ospitalea gorabehera, herritarrek arretarik onena jaso dezaten».

2013-05-17

JON DARPÓN: “SE HAN SENTADO LAS BASES PARA DOTAR A LA CIUDADANÍA GIPUZKOANA DE UNA ATENCIÓN ONCOLÓGICA ÚNICA Y DE CALIDAD”

El consejero de Salud informa en el Parlamento de la puesta en marcha de dos equipos de trabajo para renovar el concierto de financiación y avanzar en la integración funcional del Hospital Universitario de Donostia y Onkologikoa

El consejero de Salud del Gobierno Vasco, **Jon Darpón**, ha asegurado que el Plan de Integración Funcional de la Atención Oncológica en Gipuzkoa, en cuya elaboración ya se trabaja, posibilitará una **atención oncológica única y de calidad** en ese territorio y para todos los ciudadanos y ciudadanas.

En comparecencia parlamentaria, el consejero, acompañado por el viceconsejero de salud y miembro del Patronato de Oncologikoa, Guillermo Viñegra, han manifestado que, de hecho, **se han constituido ya dos equipos de trabajo**: uno para la **renovación hasta el año 2018 del concierto** a través del cual el Gobierno Vasco dota de estabilidad económica a Onkologikoa; y otro, de carácter clínico, en el que profesionales de Oncología, Radioterapia y Cirugía tanto del Hospital Universitario Donostia como de Onkologikoa **avanzarán de facto en esa integración funcional de ambos centros**.

El acuerdo entre responsables de Onkologikoa, el Hospital Universitario de Donostia y el Gobierno Vasco contempla en un primer estadio poner en marcha **Comités únicos de tumores**; mejorar los **protocolos comunes**; **coordinar la demanda** para que no haya diferencias de espera; **intercambiar conocimiento científico** entre facultativos; y **compartir la información clínica** de forma que los pacientes puedan consultar indistintamente desde cualquiera de los centros.

En concreto, se está abordando ya la creación de un **Servicio Integrado de Oncología Radioterápica y Radiofísica**, mientras que en una segunda fase se trabajará en los **servicios de Hematología y Oncología Médica**.

A medio plazo, se incorporarán también a los grupos de trabajo **profesionales de Atención Primaria** y de los **centros hospitalarios de Gipuzkoa**.

En palabras de los responsables del Departamento de Salud, el objetivo último del Plan que ha empezado a desarrollarse no es otro que **“organizar la actividad oncológica en función de las necesidades de los y las pacientes**, con independencia del hospital en el que sean atendidos en cada fase de su enfermedad y garantizando así la mejor asistencia posible al ciudadano o ciudadana”.

17-5-2013